DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN AnD.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzarrak, 2025eko otsailaren 13an izan zuen ohiko bilkuran, erakunde adierazpen hau onartu zuela, gehiengoz:

***"Donostian izan den azken eraso sexistaren aurrean egiten dugun adierazpen instituzionala.***

*1.- Udalak bere gaitzespen sutsuena adierazi nahi du, bai eta biktimari eta haren inguruari elkartasuna adierazi ere. Horretarako, behar dituen informazioa eta udal-baliabideak jarriko ditu haren osatze- eta erreparazio-prozesuan laguntzeko.*

*Ildo horretan, Udalak, kasuaren berri izan eta ikuspegi osoagoa eta zehatzena izateko informazioa egiaztatu ondoren, Udalaren Indarkeria Matxistari Erantzuteko Protokoloa aktibatu du, premiazko bilera bat deituz informazio guztia biltzeko eta erakundeen erantzuna eta biktimari eta haren inguruneari eman beharreko arreta koordinatzeko.*

*2.- Horrelako erasoak gure gizartean dagoen indarkeria matxistaren eta genero-desberdintasunaren adierazpenak dira. Gertatutakoak agerian uzten du, beste behin ere, beharrezkoa dela eragile sozialekin, feministekin eta, oro har, herritarrekin batera lan egiten jarraitzea, gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde.*

*3.- Alde horretatik, Udalak, bere eskumenen barruan, neurriak bultzatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du, biktimek arreta azkarra, koordinatua eta eraginkorra jaso dezaten, eta, aldi berean, prebentzio-jarduerak indartu daitezen eta erasotzaileen zigorgabetasuna onartu ez dadin.*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 13 de febrero de 2025, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

***"Declaración institucional ante la última agresión sexista en Donostia / San Sebastián.***

*1.- El Ayuntamiento manifiesta su más enérgico rechazo y condena así como su solidaridad con la victima y su entorno, y pone a su disposición la información y los recursos municipales que requiera para acompañarla en su proceso de recuperación y reparación.*

*En ese sentido, el Consistorio, desde el momento que ha tenido noticia sobre el caso y tras contrastar la información que nos permitiera tener la visión más completa y certera posible, ha activado el Protocolo de Respuesta del Ayuntamiento ante la Violencia Machista, convocando una reunión de urgencia para recabar toda la información y coordinar la respuesta institucional y la atención a la víctima y su entorno.*

*2.- Este tipo de agresiones son la expresión de la violencia machista y la desigualdad de género que todavía existe en nuestra sociedad. Lo sucedido pone en evidencia, una vez más, la necesidad de seguir trabajando de manera conjunta con los agentes sociales, feministas y la ciudadanía en general en favor de la igualdad de hombres y mujeres.*

*3.- En este sentido, el Ayuntamiento, dentro de sus competencias, se compromete a seguir impulsando medidas para que las víctimas reciban una atención rápida, coordinada y eficaz y, al mismo tiempo, para que se refuercen las actuaciones preventivas y no se permita la impunidad de los agresores.*

10740n XVII

*4.- Udalak bat egiten du hirian egiten diren gaitzespen-deialdiekin.*

*4.- El Ayuntamiento se suma a las convocatorias de repulsa que se realicen en la ciudad.*

*Donostian, 2025ko otsailaren 7an*

*Donostia / San Sebastián, 7 de febrero de 2025*

*Jon Insausti Maisterrena*

*EAJ-PNVren bozeramailea*

*Portavoz EAJ-PNV*

*Juan Karlos Izagirre Hortelano*

*EH Bilduren bozeramailea*

*Portavoz EH Bildu*

*Ane Oyarbide Ochoa*

*PSE-EEren bozeramailea*

*Portavoz PSE-EE*

*Víctor Lasa Briz*

*Elkarrekin Donostiaren*

*Bozeramailea*

*Portavoz Elkarrekin Donostia".*

**IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL**

**Nagore SARASOLA OTERMIN**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Nagore Sarasola Otermin (20/02/2025 11:36 CET), Eneko Goia Laso (20/02/2025 12:47 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : 9TKI-X5MY-D5SA-3R2G